

## **49. ALDIZKARIA - 2007ko apirilaren 20a**

Barañaingo Udalak, 2006ko abenduaren 28an egin osoko bilkura arruntean, legez ezarritako quoruma zuela, erabaki zuen behin betikoz onestea Herritarren Partaidetzaren gaineko Erregelamenduko aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erabaki hori 2007ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 31n, baita Barañaingo Udalaren iragarki ohelean ere eta gisa horretara jendaurrean eduki hiru hilabetez.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu Foru Legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, ordenantza behin betikoz onetsizat jotzen da, eta haren testu osoa argitaratuko da, behar diren ondorioak izan ditzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da aipatu agindua betez, eta ohartarazten ezen honako erabaki honen aurka \_xedapen administratiboa baita\_ ezin dela administrazio bidean errekurtsorik paratu (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107.3 artikuluari jarraikiz); hortaz, behin betiko onespene honen aurka ondoko bideren bat erabiltzen ahalko da:

a) Bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari zuzenean aurkeztuta, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz.

b) Hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuta, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2007ko martxoaren 8an. \_Alkate udalburua, Iosu Senosiain Ibáñez.

## **HERRITARREN PARTAIDETZAREN GAINEKO ERREGELAMENDUA**

### **ZIOEN AZALPENA**

2003-2007 legegintzaldiaren hasieratik, Barañaingo Udala lanean ari da Barañaingo bizilagunek udal bizitzan parte hartzea erraztu eta sustatzeko.

Gogo horrekin sortu zen Herritarren Partaidetzaren Alorra. Horrek zenbait jarduketa bultzatu ditu, bide berriak ireki nahirik herritarren partaidetza txertatzeko gure herria gobernatzeko maneran.

Prozesu horretan, Herritarren Partaidetzaren gaineko Erregelamendu hau tresna garrantzitsua da. Barañaingo herritarrek udal gaietan informatzeko eta parte hartzeko duten bide ezberdinen gaineko arauen multzoa da. Orobat, herritarren

entitate eta elkarteen eta Udalaren arteko harremanak formalizatu nahi ditu, horretarako beharrezkoak diren bitarteko, modu eta prozedurak proposatuz.

Barañaingo Udalak eskaturik, 2005eko amaieran eta 2006ko hasieran, Nafarroako Unibertsitate Publikoko lantalde batek herritarren partaidetzaren gaineko azterlana egin zuen gure udalerrian. Haren xedea zen partaidetzaren errealitateari buruzko diagnostikoa eskuratzea zen, baita funtzionatzeko proposamen bat ere \_erregelamendu honetan biltzen dena\_ herritarren partaidetza izan dadin Barañain gobernatzeko moldearen ezaugarri.

Azterlan horrek agerian jarri du Barañainen elkarte sare bizi, emankor eta askotarikoa dagoela, herritar guztiendako interes handiko zerbitzuak egiten dituen eta, gizarteak atomizaziorako gaur egun duen joeraren kontra, hazten ari dena bai elkarteen kopuruaren aldetik bai egungo taldeetan kidetzen diren jendeen kopuruaren aldetik ere. Izan ere, Barañaingo biztanleriaren %14 biltzen dute.

Erakunde sare hau, ongi hornitua eta errotua, zimendu ederra da partaidetza prozesuak abiarazteko azpegitura eta abiapuntutako balio izateko. Halaber, erakunde horietan prestasuna dago Udalak borondate argi eta espresuarekin sustatzen dituen afera publikoetan parte hartzeko.

Erregelamendu hau Udalbatza osatzen duten udal talde politiko guztien konpromiso esplizitua da, herritarrendako ez ezik herritarrekin gobernatzeko borondatea agertzen baitute.

Herritarren partaidetza da biztanleriak afera publikoetan esku hartzeko jarduera, prozesu eta teknika multzoa, herritarren eskariak eta premiak bereganatzen dituen administrazio publikoak bideragarritasun eta eraginkortasun handiagoez hornitze aldera.

Gobernuan aritzeak dakartzan arazoak konpontzeko bide bat da partaidetza, erabaki egokiak hartzea errazten du, kontsentsurako bideak ezartzen ditu eta gatazkak eragozten. Barañaingo Udalaren jardunean erantzukizuna, demokrazia eta gardentasun maila sendotu eta indartu nahi dugu Erregelamendu honen bidez.

Herritarren premiak zein diren jakiteko eta are haiei aitzintzeko biderik hoberena herritarren erakundeak Udalaren jardunera ekartzea da. Partaidetza arrazionalizazio eta modernizazio faktorea da gure administrazioaren funtzionamenduan.

Barañaingo Udalak gogoan duen partaidetza gure sistema demokratiko ordezkatzaillearen osagarria da haren alternatiba bainoago, eta xedea du demokraziaren kontzeptua bera toki mailan zabaltzea eta sendotzea eta jendeek gero eta parte hartze handiagora jotzea beren interesei dagozkien erabakietan.

Premiazkoa da, beraz, bulkada ematea herritarren partaidetza bere ezaugarri nagusien artean ezarriko duen toki erakundearen gobernu ereduari, eta horixe da Erregelamendu honen xedea.

## **ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Oinarriko araudia.**

Erregelamendu honek xedea du Barañaingo herritarrek eta udalerriko herritarren elkarteek udal jardueran parte hartzeko bitarteko, modu eta prozedurak

arautzea, Toki Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 1; 4.1.a), eta 69. artikulutik 72.enera bitartekoetan aurreikusitakoari jarraikiz, Tokiko gobernua modernizatzeko neurrien gaineko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak eman zion idazketa berrian.

Aipatu artikuluez gain xedapen hauek ere oinarritu dute Erregelamendu hau:

a) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 92. artikulutik 96.era bitartekoak eta 318.1 artikulua.

b) Toki Entitateen Esparruko Herri Kontsultak arautzen dituen azaroaren 21eko 27/2002 Foru Legea.

c) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 eta 37. artikuluetan bereziki, herritarren eskubideez aritzen direnak administrazio publikoen jardueraz den bezainbatean.

Erregelamendu honek indarra izanen du partaidetzari buruzko egungo araudiak dirauen bitartean eta, aldiz, aldatu beharko da hura aldatuz gero.

## **2. artikulua. Arauaren xedea.**

Barañaingo Udalak herritarren partaidetzarako proposatzen duen ereduak xede hauek ditu:

\_Herritarren partaidetzarako Barañaingo instituzio esparrua garatzea eta maila goragoko legeetan partaidetzari buruz jasotzen diren eskubideak biltzea.

\_Herritarrek udal kudeaketan parte hartzeko bideak erraztea eta sustatzea, administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio eraginkorragoaren bidez, betiere begiratzuz legeak ezartzen dituen ordezkari organoen erabakitze ahalmena.

\_Partaidetzarako modu, eremu eta organoak ezartzea, nahi duenak herritarren eta gobernu egituren antolaketa molde berrietan parte hartzeko aukera berdintasuna izan dezan, eta bi alderdien arteko harremanetan trabarik izan ez dadin.

\_Herritarren partaidetzaren kultura sortzen laguntzea, gizarte zibilaren ikuspegia eta esku hartzea zabaltzeko eta sendotzeko sistema demokratikoaren barnean, eta jarduketa modu parte hartzaileak zehazteko agintarien eta udal langileen artean.

\_Barañaingo garapena bulkatzea, herritarren elkarte eta entitateen egitura indartuz.

\_Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilpena sustatzea, partaidetza tresna bat gehiago den aldetik herritarrekiko partaidetza eta komunikazioa denbora errealean errazte aldera

## **LEHEN TITULUA. PUBLIZITATEA ETA PARTAIDETZA UDAL ORGANOETAN**

### **3. artikulua. Udal organoen bilkuren publizitatea.**

Bizilagunak ahalik eta hobekien egon daitezzen jakinaren gainean, udal organo guztien deialdiak eta gai zerrendak Herriko Etxeko iragarki oholean eta Udalaren web orriaren bitartez emanen dira argitara. Horrez gain, komenigarritzat jotzen dena helaraziko zaie herriko eta erkidegoko hedabideei.

Udalak borondatezko datu basea sortuko du osoko bilkurako gaiez edo informazio batzordeen gai zerrendez jakingarriak bildu nahi dituzten jende edo elkarteekin, eta jakingarri horiek posta elektronikoaren bidez edo horretarako bitartekorik egokiena erabiliz ailegarazteko lana hartuko du bere gain.

Halaber, Udalak osoko bilkuran hartutako erabaki aipagarrien eta bertze gai batzuen eduki laburtua emanen du argitara iragarki oholetan eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean, hala behar duenean, baita Udalaren web orrian, herriko eta erkidegoko hedabideetan edo bertzalekoetan ere, hala nola argitalpenak, liburuxkak eta bandoak, publizitate afixak, informazio egintzak, bideoen proiektzioa eta beharrezkotzat jotzen diren bertzelako baliabide guztiak erabiliz.

Interes orokorreko inguruabarrek komenigarri egiten dutenean, erabakiak hartzeko eskumena duen organoak udalerrian bizi diren herritar guztiei edo halako adin edo ezaugarri bat dutenei igortzen ahalko dizkie, zuzenean, beraiei eragiten dieten udal erabaki eta xedapenak, deusetan ukatu gabe bertze bide batzuen bitartez argitaratu ahal izatea.

### **4. artikulua. Osoko bilkurak.**

Osoko bilkurak jendaurrekoak izaten dira, salbu eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 80.1 artikuluan eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 88.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan.

Sarbidea emanen zaie bilkuren nondik norakoak jakiteko interesa duten jende guztiei, eta ahaleginak eginen dira aldi bereko emisioa egiteko hedabide egokien bidez, hala nola, herriko irrati-telebista, Internet, edo bertzelakoak.

Orobat, hedabideetako ordezkariak lehentasuneko sarbidea izanen dute eta erraztasunik handiena izanen dute bere lan egin dezaten.

### **5. artikulua. Partaidetza osoko bilkuran.**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 72. artikulua aipatzen dituen elkarte edo entitateetarako batek adierazpen bat egin nahi badu osoko bilkuran zerrendako gairen baten gainean, alde aurreko tramitazio administratiboan interesatu gisa parte hartu baitu, Alkatezari eskatu beharko dio osoko bilkura egin baino gutenez ere 2 egun baliadun lehenago. Zehaztu beharko dute zer gairen gainean nahi duten mintzatu eta adierazi nahi dutenaren laburpen bat aurkeztu.

Eledunen Batzordeak oniritziaren ondotik Alkatezari baimena emanda, elkarteak, ordezkari bakar baten bidez, bere iritzia agertzen ahalko du, gai zerrendan sarturiko proposamenaren irakurketaren, eztabaidaren eta bozketaren aitzin Alkatezari gehienez ere zehaztuko duen denboran.

Zerrendako gai zehatzetan mintzatzen denean, alkateak etenaldi bat eginen du eta adierazpena burutu ondoan jarraipena emanen zaio bilkurari.

Izaera orokorra ez duten mozioak direnean, botoa emateko eskubidea duten bizilagunek proposatzen ahalko dute Udala osoko bilkuran gai batez ari dadin, bi bide erabilita:

1.\_Udal talde baten bitartez, mozio gisara, edo bertzenaz,

2.\_Bizilagunen %10en sinaduren abalarekin, beranduenez osoko bilkura egin baino 5 egun baliodun lehenago aurkeztuta.

Bigarren kasu horretan, Alkateak bere gain hartuko du gaia zerrendan sartzeko konpromisoa.

## **6. artikulua. Galdera txanda osoko bilkuran.**

Barañaingo bizilagunek, norik bere izenean edo Herritarren elkarte eta entitateen Udal Erregistroan inskribaturik dauden herritarren elkarte edo entitateak ordezkatzuz, Alkatezari galdetzen ahalko diote udal intereseko gai zehatzen gainean, bilkura bukatuta, galde-eskarien atalean. Alkateak Udalbatzako edozein kideri ahalmena ematen ahalko dio galdera horiek erantzuteko.

Bilkura bakoitzean 5 aldiz mintzatzeko aukera izanen da; Alkatezaren lana izanen da eztabaida kudeatu eta zuzentzea.

Udaleko talde politikoek galde-eskarien gaineko iritzia ematen ahalko dute, laburki. Informazio eskaera izanez gero, erantzuna idatziz eman beharko da 15 egun balioduneko epean. Horrek ez du galaraziko berehalako erantzuna ematea.

## **7. artikulua. Partaidetza informazio batzordeetan.**

Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak ez dira jendurrekoak, ezta informazio batzordeenak ere. Hala ere, Herritarren elkarte eta entitateen Udal Erregistroan inskribaturik dauden herritarren elkarte edo entitateen ordezkariak eta norbanakoak joaten ahalko dira azken horien bilkuretara, kasuan kasuko informazio batzordeko gehiengoak baimendu edo gonbidatu baditu.

Informazio batzorde batean adierazpen bat egin nahi badute, bilkura hasi baino 24 ordu lehenago eskatu beharko diote baimena batzordeburuari.

Batzordeak eta, salbuespenetan, batzordeburuak baimendurik, delako bizilagunak edo delako elkarteak bere iritzia ematen ahalko du, ordezkari bakar baten bitartez, adierazten zaion denboran, gai zerrendan sarturiko proposamena irakurri, eztabaidatu eta bozketatu aitzin.

Elkartearen estatutuen arabeko legezko ordezkaria izanen da mintzatzen den kidea. Betiere agiri bidez frogatu beharko da eramaten den ordezkari-tza.

## **8. artikulua. Publizitatea eta partaidetza Barañaingo Udalaren menpeko erakunde autonomoetan.**

Patronatu, fundazio eta Barañaingo Udalaren menpeko bertze erakunde autonomo edo aholku emaileen oraingo edo geroko estatutuetan arautuko da herritarren partaidetza, haien jarduerari eta gobernu organoei dagokienez.

## **9. artikulua. Erantzuna herritarren proposamenei.**

Udal eskumeneko edo toki mailako intereseko alorretan herritarrek egiten dituzten jarduteko proposamenak, oharrak edo iradokizunak ahalik eta azkarren erantzunen dira.

Udalaren kalitate planaren barnean erantzuna emateko prozedura ezarriko da, espedientearen tramitazioaren gaineko argibideak bermatzeko.

Proposamenaren edukia kontuan harturik eta behar diren txostenak eskaturik, Udalak gehienez ere hiru hilabeteko epea izanen du gaiari ebazpena emateko.

Adierazpenean egilearen nortasunaren inguruko datuak sartuko dira, baita horiek egiazkoak direla frogatzeko bezainbat argibide ere, administrazioak erantzun ahal izan dezan.

## **BIGARREN TITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA BARAÑAINEN**

### **10. artikulua. Informaziorako eskubidea.**

Informaziorako eskubidearen aitormenez, Udalak biztanleekiko informazio trukea bulkatuko du udal kudeaketarako, beharrezko juzgatzen diren bitarteko guztiak erabiliz, muga bakarrak direla Espainiako Konstituzioaren 105. artikuluko b letran eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 eta 37. artikuluetan aurreikusitakoak.

Hartara, gutienez bitarteko hauek erabiliko dira aipatu eskubidea betetzeko:

\_Udalaren informazio aldizkaria (BIM) argitaratuko du, aldizkotasun jakina izanen duena, gutienez ere hiru hilekotik behin; hartan, Udalean interes handiena duten gaien zerrenda sartuko da.

\_Herritar eta entitateen iritzia eta ekarpenak bilduko ditu, interes publiko eta sozialeko premien gaineko azterlana eta diagnostikoa egiteko tenorean, horretarako informazio kanpainak, eztabaidak, bilerak, kontsultak eta iritzi azterketak erabiliz.

\_Zerbitzu publikoak antolatzean, joera izanen da erabiltzaileen iritzia kontuan hartzea haien kudeaketa hobetzeko lagungarria bada.

\_Interesa duen udal jarduera guztiaren zabalkudea egiteko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabili eta garatuko dira. Hartara, toki mailako irrati-telebista sortzeko ahalegina egingen da, eta hori garatzeko erregelamendua prestatuko da, hori guztia deusetan ukatu gabe bertze hedabide batzuen erabilpena, hala nola jakinarazpenak, bandoak, liburuxkak eta afixak, iragarki ohola, prentsako iragarkiak, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, etab.

## **11. artikulua. Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordea.**

Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordea azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 125. artikuluekin bat osatuko da, hartan alorreko teknikariak parte hartuko du eta haien eginkizunen artean honako hauek izanen dira, adibide gisara:

\_Partaidetzarako baldintzak ezartzea: protokoloa, ordezkariak, parte hartzeko moldeak, gaiak, aurrekontuaren zehaztapena.

\_Bitartekari lana egitea partaidetzarako lantaldearen, Alkatetzaren, gobernu taldearen eta osoko bilkuraren artean.

\_Partaidetzaren Erregelamenduaren jarraipena egitea.

\_Elkarteen Baliabide Zentroa erabiltzeko baldintzen erregelamendua prestatzea.

## **12. artikulua. Herritarren Partaidetzaren Alorra.**

Herritarren Partaidetzaren Alorrek lan hauek egiteko ardura izanen du:

a) 10. artikuluko informaziorako eskubidearekin ikusteko izanik herritarrek egiten dituzten eskari guztiak bideratzea, baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 69.1 artikulua onduz Udalak ematen duen informazio guztia bideratzea ere.

b) Jendeari argibideak ematea Udalaren organo eta zerbitzu guztien xedeen, eskumenen eta funtzionamenduaren gainean.

c) Herritarrari harrera egiteko sistema abiaraziko da, erreklamazioak eta/edo iradokizunak biltzeko. Hilabetean behin, Tokiko Gobernu Batzarrari horren berri emanen zaio, Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordearen edo ukitutako batzordeen irizpenaren ondoan.

Guztirako, 012 Infolocal zerbitzua erabiltzen ahalko da.

## **13. artikulua. Partaidetza prozesuak.**

Herritarren partaidetza bulkatzeko, herritarrek, beren erakunde eta elkarten bitartez edo bana-banaka, gaiak eramatean ahalko dituzte Partaidetza Prozedura.

Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du zein diren, Udalean, partaidetza prozesuak aitzina eramateko adina interesa duten gaiak. Orobat zehaztuko da zein diren partaidetza mailak eta zein erabili beharreko hedabideak, herritarrei emanen baitzaie partaidetza prozesua irekitzen duten gaien berri.

## **14. artikulua. Partaidetzarako lantaldeak.**

Partaidetzarako lantaldeak sortuko dira Gobernu Batzarrak Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordearen bidez abiaraztea erabakitzen duen partaidetza prozesu guztiak eramateko. Beraz, partaidetzarako zenbat gai zehazten diren, partaidetzarako horrenbertze lantalde izaten ahalko da.

Lantalde hauetan Herritarren Partaidetzarako zinegotzia izanen da, lantaldeko buru, baita Partaidetzako teknikaria ere.

Gainera, erakundeen ordezkariak parte hartuko dute lantalde hauetan, partaidetza prozesu bakoitzean esku artean erabiltzen diren gaien aiora, baita Udaleko langile batek ere, aktak egiteko, baita gai bakoitzeko adituek ere.

Halaber, adituren bat izaten ahalko da herritarren partaidetzan, baldin eta gaiaren konplexutasunak hala nahi badu eta beharrezko juzgatzen bada. Erabakiak hartzeko tenorean, jende horiek hizpidea izanen dute baina ez botorik.

#### **15. artikulua. Partaidetzarako lantaldeen eginkizunak.**

Partaidetzarako lantaldeen eginkizunak dira:

\_Partaidetzarako metodologia eta bideak ezartzea, denborak eta guzti.

\_Partaidetza bideratzea eta egituratzea.

\_Erabakiak hartzea, partaidetzarako estrategia, plan eta ekintzen gainean.

\_Erabakien kudeaketa.

\_Bitartekari lana egitea Herritarren Partaidetzaren Informazio Batzordearekin eta, haren bidez, Alkatetzarekin, Tokiko Gobernu Batzarrarekin, osoko bilkurarekin eta gainerako batzordeekin.

\_Bitartekari lana egitea, gaien aiora, kontseilu sektorialekin edo, hala behar badu, gainerako udal alorrekin.

\_Lantaldeko kideen eta haien ordezkarien eta ordezkatuaren artean interesek talka egin eta/edo gatazkak gertatuz gero, horiek kudeatzea.

\_Lantaldearen, herritarren erakundearen eta herritarren arteko komunikazioa kudeatzea (giroa piztea, informazioa ematea, etab).

\_Lantaldearen lanen agiriaren, materialen, akten eta abarren zainketa.

\_Partaidetza prozesuen jarraipena eta ebaluazio jarraitua.

\_Azken ebaluazioa (kanpoko eta/edo barnekoa).

\_Partaidetza prozesu guztiaren azken agiriaren prestakuntza (txostena, parte hartuz egina), kanpoko adituek egin dezaketena, halakorik bada.

#### **16. artikulua. Zinegotzien aholkularitzak.**

Udal talde bakoitzak herritarren eskura toki eta eta ordutegi zehatz bat jarriko du Udalaren barnean, haren zinegotziek herritarren galdeak, iradokizunak, kritikak, proposamenak, etab. bil ditzaten.



## **17. artikulua. Zinegotzien aholkularitzen eginkizunak.**

\_Barañaingo herritar guztien proposamenak, kritikak eta iradokizunak biltzea, hiriko gai politikoen, zerbitzuen, erakundeen, eta abarren gainean.

\_Jasotakoaren gaineko argibideak ematea alor, kontseilu edo batzorde guztiei, zer gai den eta halakori.

\_Herritarrei argibideak ematea Udalaren jarduera, zerbitzu, programa eta abarren gainean.

\_Beren esparruko aferak trenkatzea.

\_Beren taldearendako eta/edo gobernu taldearendako txostenak prestatzea.

## **HIRUGARREN TITULUA. HERRITARREN ELKARTE EDO ENTITATEAK**

### **18. artikulua. Elkartegintza eta boluntarioritza sustatzeko neurriak.**

Udalak elkartegintza eta boluntarioritza sustatu gogo du, herri nahiz sektore mailakoak izan, herritarrek Barañainekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboa baita, eta boluntarioritza haren adierazpen engaiatu eta eraldatzaileena baita.

Barañaingo Udalak, sustapen neurri ezberdinak erabiltzen ahalko ditu, hala nola laguntzak, dirulaguntzak, hitzarmenak edo bertze edozein lankidetzeta mota, xede horretarako egokia bada.

Alde horretatik, Udala honako hauetan aritzen ahalko da lankidetzan:

\_Prestakuntza eta gaikuntza programak, elkarte mugimenduaren bizkortzea eta bulkada erdiesteko.

\_Aholkularitza lanak, elkarteen edo boluntarioritzaren alde.

\_Baliabideen ekarpena, adieraziko diren baldintzetan, udal intereseko jarduerak sustatzeko.

Aurrekontuan dauden baliabideen ariora, Udalak dirulaguntzak emanen dizkio bizilagunen interes orokor edo sektorialen aldeko elkarte edo entitateei. Udalaren aurrekontuak horretarako kontusailak izanen ditu.

Udalak bidea emanen dio Herriko Etxearen eta elkarteen arteko lankidetzari eta haizea elkarteen arteko elkarlanari.

Dirulaguntza emateko eta hura kontrolatzeko ez bada, Udalak ez du eskurik sartuko elkarteen barne kontuetan.

### **19. artikulua. Herritarren Elkarte eta Entitateen Erregistroa. Xede eta ezaugarriak.**

Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroaren xedea da Udalari bide ematea udalerrian diren entitateen kopurua, motak, xedeak, ordezkaritza eta eragina ezagutzeko, hiriko elkarte egitura sendotzen lagunduko duen udal politika egokia antolatze aldera.

Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroak ez du loturarik Elkartearen Erregistro Orokorrearekin. Beraz, entitate edo erakunde bat bigarren horretan inskribatzeak ez du erran nahi lehenengoan inskribatzen denik, eta alderantziz.

Herritarren Elkarte eta Entitateen Udal Erregistroko datuak nornahik ikus ditzake.

## **20. artikulua. Erregistroan inskribatzea.**

Erregistroan inskribatzen ahalko dira irabazteko asmorik gabeko herritarren elkarte eta entitateak, haien xedea udalerraren interes orokor edo sektorialak defendatu, sustatu edo hobetzea bada; batez ere, auzo elkarteak, guraso elkarteak, kultura, kirol eta josteta elkarteak, gazteen elkarteak, sindikatu, enpresa eta lanbide elkarteak, eta Barañaingo lurralde eremuan diharduten gisako entitate guztiak.

## **21. artikulua. Inskribatzeko prozedura.**

Inskripzioa egin nahi duten herritarren elkarte eta entitateek eskaera aurkeztu beharko dute Barañaingo Udalaren Erregistro Orokorrean, ondoko agiriak erantsita:

1.\_Estatutuen kopia eta elkartearen eratze dataren ziurtagiria.

2.\_Elkartearen Erregistro Orokorreko eta bestelako erregistro publikoetako inskripzio zenbakiak.

3.\_Zuzendaritza karguetan dauden pertsonak izendatzeko onetsi eta batzarretako aktetan jaso ziren erabakien hitzez hitzeko ziurtagiriak, kargudunen izenekin.

4.\_Helbide soziala.

5.\_Urteko aurrekontua.

6.\_Urteko jardueren egitaraua.

7.\_Bazkide kopuruaren ziurtagiria.

## **22. artikulua. Inskribatzeko eskaeraren gaineko ebazpena.**

Barañaingo Udaleko idazkaritza orokorrak behar diren egiaztapenak eginen ditu elkartearen inskribatzeko; erregistroa eskatzen denetik hasi eta hamabortz egun balioduneko epean inskripzio zenbakia jakinarazi beharko dio elkarte interesatuari.

Epe hori eteten ahalko da, elkarteari agiri gehiago eskatu behar bazaizkio hasieran aurkeztutakoez gainera. Elkarteak, ematen zaion epean, eskatutako datuak aurkezten ez baditu, inskribatzeko asmoa bertan behera utzi duela ulertuko da.

Arestian aipatutako hamabortz egun balioduneko epean elkarte eskatzailearen inskribatzeko eskaerari erantzuten ez bazaio, inskripzioa egintzat joko da, baldin eta elkarteak aitzineko artikuluan eskatzen diren agiriak aurkeztuak baditu.

### **23. artikulua. Herritarren elkarte eta entitate inskribatuen betebeharrak.**

Herritarren elkarte eta entitate inskribatuek Herritarren Elkarte eta Entitateen Barañaingo Udal Erregistroan jakinarazi beharko dituzte, gertatzen diren egunetik hasi eta hiru hilabeteko epean, beren inskripzio datuen aldaketa guztiak, hala nola batzordekide berrien izendapena, egoitza berria, estatutuetak aldaketak, etab.

Erregelamendu honen onespeneren ondotik, elkarteek Udalean inskribatu beharko dute urte hasieran.

Udalak, burokrasia eragotzi beharrez, inprimaki estandarra prestatuko du, laburra, eta hura urteroko urtarrilean igorriko, herritarren elkarte eta entitateek urte horretako plangintzan sartutako jardueren aurkezpena errazteko.

Herritarren elkarte eta entitateek erantzukizuna izanen dute udal instalazioen erabilerarengatik eta haietan eragiten ahal dituzten kalteengatik.

Betebehar horiek bete ezean, behar den espedientea tramitatu ondotik, herritarren elkarte edo entitatea erregistrotik kentzen ahalko da. Horrek erregelamendu honetan jasotako eskubideak galditzea ekarriko du.

Elkarte bat kendu aitzin, Udala harremanetan sartuko da harekin eta aditzera emanen dio zein diren kentzeko asmoa abiarazi duten okerrak.

### **24. artikulua. Udal instalazioen erabilpena.**

Udalak Baliabide Zentroa paratuko du herritarren eskura, Herritarren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribaturiko elkarteendako. Hartan, aretoak, bulegoak, artxiboak, teknologia berrietarako sarbideak, etab. izanen dira, erran nahi baita, bilerak egiteko, materialak zaintzeko eta gisa honetako toki batean lekua izan dezaketen jarduera guztiak egiteko beharrezkoa dena.

Orobat, Herritarren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribaturiko elkarteek bidea izanen dute Udalaren baliabide publikoak erabiltzeko, bereziki bertze lokal batzuk eta hedabideak, gai honetan aplikatzen ahal den eta indarra duen legeriak erabilpen horri ezartzen dizkion mugak kontuan hartuta.

## **LAUGARREN TITULUA. KONTSEILU SEKTORIALAK**

### **25. artikulua. Kontseilu sektorialak. Kontzeptua.**

Kontseilu sektorialak aholku emateko partaidetza organoak dira, eta haien xede nagusia da udal jardueraren esparru guztien arduradunei aholku eta argibideak ematea.

Herritarren elkarte edo entitateek halako kontseilu sektorial bat eratzeko eskaria egiten ahalko diote Udalaren osoko bilkurari, horretarako arrazoiak emanda. Onspena erabateko gehiengoaz eman beharko zaio.

Udalak sortzea erabakitzen duen kontseilu sektorialak bere gobernu eta jarduera eremuetara egokituko ditu.

Bertzeak bertze, kontseilu sektorial hauek izaten ahalko dira:

a) Emakumearen Kontseilua.

b) Kulturaren Kontseilua.

c) Euskararen Kontseilua.

d) Gazteriaren Kontseilua.

e) Hezkuntzaren Kontseilua.

f) Kultura artekotasunaren Kontseilua.

g) Kirolen Kontseilua.

h) Enpresa txiki eta ertainen, herriko merkataritzaren eta enpleguaren Kontseilua.

i) Etxebizitza eta Hirigintza Kontseilua.

## **26. artikulua. Kontseilu sektorialak. Eratzea.**

Barañaingo Udalak kontseilu sektorialen sorrera bulkatuko du eta sostengu emanen du eskura dituen bitarteko egokien bidez, horiek beren xedeak bete ditzaten.

Sektore kontseilua eratu ondoan, Udalbatzak osoko bilkuran erabakia hartuta, funtzionatzeko behar den araudiaz hornituko da.

## **27. artikulua. Kontseilu sektorialak. Eginkizunak.**

Kontseilu sektorialek lege edo erregelamendu mailako arauetan, erregelamendu honetan edo, halakorik bada, haiek garatzekoetan zehazten diren eginkizunak izanen dituzte eta bertzeak bertze honako hauek, Udalaren jarduketa esparruetan bereari dagokionez:

1.\_Udaleko organo guztiei argibideak eta aholkuak ematea bere eskumeneko gaietan.

2.\_Ikusteko duten sektoreen babesa, garapena eta bizi kalitatearen sustapena bulkatzea.

3.\_Bere jarduketa sektorearen barnean elkartegintza, boluntarioria eta elkarlana sustatzea.

4.\_Kontseiluaren esparruaren barnean ari diren erakunde, elkarte edo entitate publiko nahiz pribatuen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta elkarlana indartzea.

5.\_Pertsonen eskubidearen babesa bilatzen duten politika integralen aplikazioa bulkatzea.

6.\_Bere esparruko proposamenak lantzea, bere jarduketa eremuaren ardura duen Zinegotzigoak azter ditzan zehazten diren bideak erabilia.

7.\_Aldez aurretik eta arrazoiak emanez eskaera eginda, argibideak biltzea bere jarduketa eremuko udal programen gainean.

8.\_Agenda 21eko garapen iraunkorreko prozesuetan elkarlan aktiboa bulkatzea.

9.\_Aurrekontuak prestatzeko prozesuetan parte hartzea, zehazten diren esparruetan. Horiek partez hartuz garatuko dira haren jarduketa eremuan.

## **BOSGARREN TITULUA. HERRITARREN EKIMENA**

### **28. artikulua. Herritarren ekimena.**

Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten bizilagunak herri ekimenaz baliatzen ahal dira, legeek ezarritako ildotik, erabaki edo jarduketa proposamenak edo xedapen orokorretarako proiektuak aurkeztuz udal eskumeneko gaietan.

Ekimenak udalerrian zentsaturiko bizilagunen %10en sinadura beharko du gutienez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 96- bis 1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Deusetan ukatu gabe ekimenari buruzko ebazpena gaiari dagokion organo eskudunak ematea, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko da. Betiere, beharrezkoa izanen da aldez aurretik Udalaren legezketasun txostena, baita Udaleko kontu hartzailearen txostena ere, ekimenak eraginik baldin badu Udalaren eskubide eta betebeharrak ekonomikoen gainean.

Ekimenak tokiko herri kontsulta baterako proposamena eramaten ahal du erantsirik, eta hura Toki Entitateen Esparruko Herri Kontsultak arautzen dituen 27/2002 Foru Legeak aurreikusten dituen prozeduraren bidez eta halabereko baldintzetan tramitatuko da.

Baldin eta ekimenerako behar den herritarren gutieneko ehuneko txikiagoa bada kontsulta tramitzeko behar dena baino, haren araudi berariazkoan xedatutakoari jarraikiz, ehuneko horri gehitu beharko zaizkio behar diren sinadura guztiak.

### **29. artikulua. Herritarren ekimena interes publikoko jarduerak sustatzeko.**

1.\_Herritarren ekimenaren bidez eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 53.etik 55.era bitarteko artikuluetan ezarria goiti-beheiti, legezketasunetik atera gabe udalerriko bizilagunek, elkarte edo entitateen bidez, Udalari eskatzen ahalko diote interes publikoko eta udal eskumeneko halako jarduera batzuk egiteko aukera azter dezan, hori egiteko eskainiz diru baliabideak, ondasunak, eskubideak edo auzolana.

2.\_Udalak, urtero, kontusail bat bereizten ahalko du herritarren ekimen honen bidez egiten diren jarduketak ordaintzeko. Erregelamendu bidez ezarriko da lankidetzak hau egiteko modua, Udalak horrela erabakitzen badu.

### **30. artikulua. Herritarren ekimenen tramitazioa.**

1.\_Herritarren Elkarte edo Entitateen Erregistroan inskribaturiko herritarren elkarte edo entitateen baten bitartez, nornahik aurkezten ahalko du ekimen bat, arestian aipatu baldintzetan.

2.\_Udalak ekimena jasota, herritarrei horren berri ematen ahalko zaie jendaurrean edukiz Udalak erabakitzen dituen baliabideen bitartez eta hilabetez, non ez den komeni, premia dela-eta edo organo eskudunaren balorazioan munta duten bertzelako arrazoiak direla eta, orokorrean ezarri ez bezalako epea erabiltzea.

3.\_Horren gaineko ebazpena emateko Udalak gehienez ere bi hilabeteko epea izanen du, jendaurrean egoteko epea amaitu eta biharamunetik, hala egiten bada, edo bertzenaz jendaurreratze hori beharrezkoa ez dela erabakitzen denetik. Ekimenaren gaineko erabakia hartzean, bertzeak bertze, interes publikoko arrazoiei begiratuko zaie.

### **SEIGARREN TITULUA. HERRI KONTSULTA**

#### **31. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.**

Udalak, Toki Esparruko Herri Kontsultak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legearekin bat, bizilagunen interesetarako garrantzi berezia duten gaien gaineko herri kontsulta egiten ahalko du, baldin eta gai horiek Udalaren eskumenekoak eta toki mailakoak badira, salbu eta toki erakundearen ogasunei buruzkoak.

#### **32. artikulua. Behar diren gutieneko baldintzak.**

Herri kontsultak betiere baldintza hauek beteko ditu:

1.\_Zentsaturiko herritar guztiek eskubidea izan behar dute kontsultatuak izateko.

2.\_Kontsultagai diren aukera alternatiboak azaltzeko ahalik eta informazio gehien eman behar da, idatziz nahiz irudien bidez.

#### **33. artikulua. Eskumen materiala.**

Udalaren osoko bilkurari dagokio herri kontsulta erabakitzea bere eskumeneko gaien gainean, baita egiazki egitea ere.

Orobat, Udalaren osoko bilkurak erabakiko du herri kontsulta egitea, indarra duen hauteskunde zentsuan inskribaturiko hautesleen %10ek eskatzen badute, gutienez ere, egun indarra duen araudiari jarraikiz.

Titulu honetan aurreikusirik ez dagoen orotan, Nafarroako Foru Komunitateko legerian xedatuari jarraituko zaio, edo bertzenaz, Estatuakoari, bereziki Erreferendum mota ezberdinak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoari, eta Toki Entitateen Esparruko Herri Kontsultak arautzen dituen azaroaren 28ko 27/2002 Foru Legeari.

### **34. artikulua. Bertze kontsulta batzuk.**

Bizilagunen interesak hala nahi duenean, Udalak bizilagunen iritzia galdegin dezake, inkestak, iritzi zundaketak edo Udalaren eskumeneko gai batez bizilagunek duten aburua jakiteko bertze edozein bide erabiliz; horretarako komunikazio elkarreragilea lortzeko edozein bide ere erabil dezake.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Osoko bilkurak argituko ditu erregelamendu honen interpretazioak eta aplikazioak pizten dituen duda guztiak, Herritarren Partaidetzaren Batzordeak aitzinetik xostena eginda, betiere indarra duen legeriak eta udal erabakiek ezarritakoarekin bat.

Erregelamendu honetan aurreikusirik ez dagoen orotan, une bakoitzean aplikatzekoa den araudiari eta bereziki erregelamendu honen testuan aipatuari jarraituko zaio.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Erregelamendu honek indarra hartzen duenetik indarrik gabe geldituko dira udal ordenantza eta erregelamenduetan egonik haren kontra egiten duten xedapen guztiak. Orobat, indarrik geldituko dira erregelamendu honetan xedatuarekin bateraezinak diren erabaki guztiak.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Erregelamendu honek indarra hartuko du haren testua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaraturik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan aurreikusitako epea iraganik.